267. zenbakia
· Azaroa 2026 ·

# pulunpe



*Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria*

# *Gaua*

## *Alejandra Pizarnik (Munduko Poesia Kaierak, Susa - 2018)*



Ezer gutxi dakit gauari buruz,
hark, ordea, bai omen daki nitaz,
are gehiago, maitekiro antzean laguntzen dit,
bere izarrez babesten kontzientzia.

Agian gaua da bizitza, eta eguzkia heriotza.
Agian gaua da deus ez
eta hari buruzko susmoak, hutsa
eta hura bizi duten izakiak, ezer ez.
Agian, hitzak, hori da guztia
mendetako hutsune mugagabe honetan,
horren oroigarri, arimako zauriak.

Baina gauak ezagutu behar du miseria,
gure odoletik edaten duena, eta gure ideietatik.
Gorrotoa bota behar du gure begietan,
interesatuak eta elkar ez ulertzez beteak direla jabetuta.

Alabaina, gaua entzuten dut negarrez nire hezurretan.
Alimaleko malkoz eta onetik irtenda,
zer edo zer betiko joan dela garrasika.

Iritsiko da eguna berriz ere izango garena.




Hautatu
0 Km komunikazioa
3 hedabide bera
Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde
Esan Erran Irratia 107.9 FM
pulunpe
amezti

**Argitaratzailea Ametza Kultur Elkartea**

**PULUNPE SAREA**
Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka Iezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

**EMAILA**
pulunpe@ametza.eus

**ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK**
Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkartea, Cederna Garalur, Irati Sarrias Ripodas, Alicia Garaialde eta Gato eta Patxi Irurzun.

**KOORDINATZAILEAK**
Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

**TIRADA**
1.700 ale.

**INPRIMATEGIA**
Gertu.

**MAKETAZIOA**
Zas Komunikazioa.

**Azaleko Argazkia**
Itziar Mariezkurrenaren argazkia.

**LEGE GORDAILUA**
NA 721/93

Inprimategira azaroaren 9an bidalia.

## AURKIBIDEA

04 **Gaurko gaia.** *Bizi Odieta kooperatiba energetikoa*

06 **Gutuna.** *Gure Mari Carmen*

08 **Kronika.** *Denok bat jubilatuen elkartea*

10 **Albisteak.**

16 **Iritzia.** *Beste aldera begiratu gabe bidaiatu*

20 **Aspaldiko kontuak.** *Alkozko etxe izenez*

23 **Ezpela euskara taldea.** *Iñaki Artola*

24 **Zer irakurri.** *Ultzamako liburutegia*

26 **Ardo freskoa.** *Eleaniztasuna?*

28 **Kultura.** *Sara Iraburu ilustratzailea*

30 **Kirola.** *Basaburuko pilota eskola*



32 **Kolaborazioa.** *Cederna Garalur*

34 **Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak.** *Iraila*

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

# *Energia berriztagarriaz gain, Odietan bizitzeko alternatiba berri bat*

Irabazi asmorik gabeko elkarte energetiko bat sortu da Odietan ekonomia, energia eta gizarte eredu alternatibo baten baitan. Irati Sarrias Ripodasek Bizi Odieta egitasmo sortu berriaren inguruko xehetasunak kontatu dizkigu erreportaje honetan

Aurreko irailean Odietako Udaletxean bilera irekia egin zen komunitate energetiko berri eta aitzindaria aurkezteko: Bizi Odieta. Irabazi asmorik gabeko elkartea tokiko energia berriztagarriaren ustiapenean oinarritzen da eta bailarako pertsona zein erakundeei ingurumen, gizarte eta ekonomia onurak eskaintzen dizkie.

Gurutze Santxo Gaskue talde eragileko kideak azaldu duenez, komunitateak bi helburu nagusi ditu ingurumenarekiko jasangarritasunaz gain. Alde batetik, bailaran komunitate soziala eta herrikoia sortzeko helburua du, herritarrak elkartu ahal izateko. Izan ere, Santxoren hitzetan Odietan ez dago komunitaterik edo herritarren arteko topagunerik.

Beste aldetik, energia eredua izateaz gain, eredu ekonomiko, lokala eta kolektiboa ere izan nahi du taldeak. Santxok azaldu duenez, Bizi Odietak helburu berriztagarria soilik izanen balu, ez litzateke ezberdinduko lehen petrolioa eta orain energia 'jasangarriak' ekoizten dituzten multinazionalen ereduetatik. Eta hori baino askoz gehiago da Odietan martxan jarri duten proiektua.

**Odieta inguruan eraiki nahi zuten makroproiektu eolikoaren mehatxuak gaiaren inguruan mugitzea eragin du herrian**

## Makroproiektu eolikoaren mehatxua

Santxok azaltzen du 2020an Odieta inguruan makroproiektu eoliko baten mehatxua izan zela Bizi Odietaren abiarazleetako bat. 2020eko maiatzean Nafarroako Gobernuan erregistratu zen lehen aldiz Anotzibarren eta inguruan bost makro-parke eoliko eraikitzeko aurreproiektua. Egoera horren aurka agertu ziren Anozibarko biztanle gehienak, eta horrek energia berriztagarrien iturri alternatiboak bilatzeko ezinegona sortu zuen bailaran.

Ezinegon horretatik tiraka, Odieta Biziren talde eragilea sortu eta 2025eko udazkenetik energia berriztagarrien inguruko formazio prozesu betean murgildurik daude. Energiaren inguruko ezagutzak partekatzeaz gain, Nafarroako landa-eremuko beste komunitate energetiko batzuen esperientziak ezagutzeko aukera ere izan dute. Gainera, Nafarroako Komunitateen Eraldaketarako Bulegoarengandik diru laguntzak jaso dituzte proiaktua abiarazi ahal izateko.



*Bizi Odieta elkarteko kideak*

# Udaletxeko aparkalekuan eguzki plakak jartzea da elkartearen asmoa

### Lehenengo bilerak

Esan bezala, irailaren 24an proiektua aurkezteko bilera irekia egin zen Odietako Udaletxean; eta aurkezpenaz gain, taldearen lehen egitasmoaren nondik norakoak azaldu ziren: autokontsumo partekatuko instalazio fotovoltaiko bat jartzea da lehen asmoetako bat.

Hain zuzen, udaletxeko aparkalekuan eguzki plakak jartzea litzateke elkartearen asmoa, Odietako Udalarekin sinatuko litzatekeen akordioaren bidez. Proiektu hau 2027an garatzea aurreikusten du taldeak, baina ez da hori izanen Bizi Odietaren proiektu bakarra. Oraindik forma zehatza erabaki gabe duten arren, bestelako energia jasangarri iturrien ustiatzea ere badute buruan.

Proiektu honek ohiko hornidura elektriko instalazioa proposatzen du, hau da, behin bazkide bihurtuta ezin da saretik deskonektatu. Horretarako, bazkideen argindar fakturak ikertu dituzte, proiektutik sortu beharko beharko den energia kopurua dimentsionatzen hasteko.

Urriaren 8an beste bilera bat antolatu zuen taldeak, eta bertan, komunitatearen parte izan nahi dutenek 30 euroko sarrera kuota bat ordaindu zuten. Santxok azaldu duenez, talde eragilea oso pozik dago bailarako herritarrek proiektuari eman dioten harrera beroarekin. Izan ere, hasiera batean aurreikusten zutena baino jende gehiago egon da bileretan parte hartzen.

### Odietako udala ere, bazkide

Odietako Udaletxea bera energia berriztagarri komunitatearen bazkide bilakatu da eta lehenengo proiektua gauzatu ahal izateko Nafarroako Gobernuari diru-laguntzak eskatzeaz ere arduratuko da. Santxok argi utzi du udala proiektuaren parte dela bazkide moduan, eta elkarteari harrera oso ona egin diola azaldu du. Dena dela, gogorarazi du Bizi Odieta proiektua herritarrengandik jaiotako herri ekimena dela eta horrela segituko dutela lanean.

*Irati Sarrias Ripodas*




*Odieta inguruan eraiki nahi zuten makroproiektu eolikoak herritarrak mobilizatzea eragin zuen, eta horik sortu da gerora taldea*

# Etxebizitza

## Maricarmen, hemengoa

Urriaren hasieran Alicia Garaialdek Noticias de Navarra egunkarira gutuna bidali zuen, Madrilgo Maricarmenen etxegabetzea bezala, gure eskualdean duela urte batzuk gertatu zen kasua argitara emaneaz. Gutuna euskarara ekarri dugu hona, egilearen baimenarekin. Maria Luisa izena zuen gure Maricarmenek, 83 urte zituen eta 50 urte baino gehiago zeramatzan Arraitz-Orkingo parrokiaren etxean bizitzen, Ultzaman

Maricarmenen inguruan Aita santuaren esaldi bat irakurri dut komunikabideetan: "Zein da arazoa amona bat bere etxetik botatzea onartzen duen sistema honetan?", galdetzen zuen. Eta, nik, galdera bueltan egiten dut, bi hitz soilik aldatuz: zein da Elizaren arazoa amona bat bere etxetik botatzea onartzen duena?

Arraitzen gertatu zen, Ultzaman, 2009an. Maricarmen ez zen Maricarmen, Maria Luisa zen, 83 urteko emakumea, Arraitz-Orkingo parrokiaren etxean bizitzen 50 urte baino gehiago zeramatzana. Etxe batean bizitzeak etxea hori zaintzea, mantentzea, margotzea, konpontzea, eta teilatuaren obra ordaintzea esan nahi zuen. Izan ere, berea izan gabe, berea balitz bezala zaindu zuen. Artzapezpikutzak ez zuen inoiz ezer egin.

50 urtek askorako ematen dute. Herriko lehenbiziko telebista etxe horretan egon zen, edozein herritarri irekita zegoena. Gure izeba, Izeba hitz larriz, kristau ona zelako, errespetua eta lagun hurkoarekiko maitasuna bezalako balio kristauetan hezia.

2009ko egun batean, eltzeko kafea prestatzen ari zela, Artzapezpikutzako burofax bat iritsi zen, esanez hilabeteko epean etxea utzi beharra zuela. Egun Huarteko erretorea den Javier Aizpunen izenpekoa zen dokumentua, garaian Artzapezpikutzako ekonomoa zena, eta azken aldian Ceutan gertatzen ari denaren inguruan egin dituen zorigaiztoko adierazpenengatik aktualiatean dagoen pertsona.

Ez zen putre-funts bat izan, beltzez jantzitako putreak ziren emakumea etxetik botatzeko iritsi zirenak. Horretarako erabili zuten arrazoia etxea komunitatearentzako behar zutela izan zen, artzain lanetarako. Epaitegietan borrokatzea erabaki genuen, jakinda galdutako kausa bat zela. Eliza Goliat oso oso handia da. Prozesua bi urte luzatzea lortu genuen, baina 2011n dena atzean utzi behar izan zuen. Etxea hutsik gelditu zen bi urte baino gehiagoz, abandonatua. Eta, bi urtetara, gure izebak utzi egin gintuen, erdi gaixotasunagatik, erdi penagatik.

Maria Luisak, zorionez, bazuen nora joan, bere ahizparen etxera joan zen, bere iloben babesa izan zuen, baina horrek ez du kentzen bizitzea tokatu zitzaion krudelkeria eta burofax baten bidez kaleratua izatearen sufrimendua.

Aizpun Jauna, gure izebak, Izeba letra larriz, mila buelta ematen zizkizun kristau gisa. "Artzain onak bere artaldea zaintzen duela" erakutsi ziguten guri, eta ez etxetik botatzen dituela. Aita santuak, Elizaren buru gisa, jakin behar luke ze motako artzainak dituen artaldea larreratzen, eta ez luke onartu behar horrelako bidegabekeriarik.

Maricarmenen kasuak gai mingarri hau orainaldiarekin lotu du. Ikusten dut bera, eta gure Izeba ikusten dut, fisikoki ere antza dute gainera. Garai hartan isiltasuna aukeratua izan zen. Ez genuen deus esan, ez genuen zaratarik egin, ez genuen laguntzarik eskatu, ez zen kanpaldirik egon. Bagenekien gure Izebak ez zuela esposizio publikorik nahi eta errespetatu egin genuen.

Baina orain, Maricarmenek honetaz hitz egiteko aukera eman digu. Batasunak, borrokak eta mobilizazio sozialak bere fruituak ematen dituela erakusten duen adibide da. Etxebizitzaren arazoak sustrai asko ditu, eta Elizak, bere ondare inmobiliario guztiarekin eta horrekin egiten duen kudeaketarekin, Leon XIV Aita santuak galdetzen zuen 'sistema' hori elikatzeko bere alea jartzen du. Pentsa dezatela honen inguruan.

*Alicia Garaialde*



*Maricarmen Abascal, Madrilen etxegabetu zuten emakumea*

# Motorra piztu aurretik, berrikusi zure medikazioa

Sendagai batzuek zure gidatzeko gaitasunari eragin diezaiokete. Adi egon eta ontzian ohartarazpen piktograma ikusten baduzu, kontsultatu erabilera-orria.





Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Tráfico Navarra
Nafarroako Trafikoa

NAVARRA : NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Denok Bat
jubilatuen elkartea

# Doneztebeko azokara eta Muskiztik Arriandira bisita

Urtero legez, Doneztebeko azienda feriara joan ginen. Mendi irteera, berriz, Muskiztik Arriandira egin genuen egun eguzkitsu batean bista ederrez disfrutatzeko

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, urriko txangoa Elizondoko ferietara egin genuen. Goizeko hamarretarako iritsi ginen, aziendaren sarrera ikusi ahal izateko. Eguraldia lagun, abere asko sartu zen azoka gunea bete arte. Batez ere behiak, behorrak eta ardiak nabariak ziren kopuru aldetik, ahuntzak, astoak, eta pottokak ahaztu gabe.

Urtero bezala bazegoen nekazalgo tresneria ugari, ia edozein lana errazteko gai zirenak. Tresneria ikusgarria beren tamainarengatik eta zekartzan berrikuntzarengatik. Hauek ikusi eta herriaren barnealdean zeuden ehundaka postuak ikusteko aukera ere izan genuen, eta mokadua hartzeko ere bai. Autobusaren orduaren zain, bakoitzak bere gustuko postuak ikusteko eta hainbatek oroigarriak edo janaria erosteko beta ere izan genuen.



*Arriandiko aztarnak ikusten*



*Behor-zaldi sorta ederrenetarikoen ondoan*

Aurtengoan bazkaria Doneztebeko Santamaria jatetxean izan genuen eta ohi bezala, atera ziguten menu luzea eta goxoa jateko aukera izan genuen.

Bazkaria ondoren, ohiko solasaldien eta mus partiden txanda izan zen. Beste batzuk Doneztebe herria ikustera joan ziren, autobusa hartu aurretik. Arratsaldeko 6:30ean itzuli ginen etxe aldera. Egun polita pasa genuen eta hainbatek esaten zutenez afaltzeko beharrik gabe.

Urriko mendi ibilaldia azarorako prestatua zegoena izan zen, Muskiztik Arriandira. Lehendik egina zen ibilaldi hau, baino oso lainotua izan



Gorostietako ermita atarian



Nekazalgo tresneria begiratzen

zen egun batean eta bista ikusgarriak dituenez eta egun zoragarria iragarrita zegoenez, mendizaleek errepikatzea erabaki zuten.

Muskitz herritik abiatu zen ibilaldia, Gorostieta ermitara lehen eta Arriandi tontorrera gero. Eguraldi garbia zegoenez, hango bista ederrez gozatzeko aukera eman zuen. Itzulera ia bide beretik egin zuten Muskitzera eta handik, bazkaltzera.

Azaroko txangoa Leire-Xabier-Zangotzara izanen da. Datorren alean kontatuko dizuegu gertatutakoa. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.

*Denok Bat Jubilatu Elkartea*



Denok Bateko karpa, Santamaria jatetxean

# *Nafarroako lehen neandertala aurkitu dute Abaunzko kobazuloan*

Nafarroan gaur arte aurkitu diren giza-arrasto zaharrenak topatu berri dituzte Abaunzko kobazuloan, Arraitz-Orkinen (Ultzama). Aurkikuntza historikoa dela nabarmendu dute ikerlariek, duela 44 eta 49 mila urte arteko neandertal baten arrastoak baitira.

Urriaren 19an, astelehenean, goizeko 11:00etan egin zuten prentsaurrekoa, Arraitz-Orkingo Kontzejuak deituta, eta bertan izan ziren Nafarroako Gobernuko lehendakari Maria Chivite, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria eta beste zenbait agintari eta erakundeetako ordezkari.

Mikel Arlegi eta Andion Arteaga izan dira Abaunzko kobazuloan ikerketan aritu den arkeologo taldeko kideak, eta gizonezko neandertal heldu baten sei hezur aurkeztu zituzten prentsaurrekoan. Ikerketan ondorioztatu dutenez, Nafarroan gaur are aurkitu diren giza-arrasto antzinenekoenak dira, baita herrialdean identifikatu den lehen neandertala ere. Gainera, Arlegik Esan Erran irratian nabarmendu zuenez, neandertalen desagerpenaren arrazoietan sakontzeko pistak eman ditzake aurkikuntzak. Momentuz, Alemaniako laborategi batean ari dira hezurrak ikertzen, eta datozen hilabeteetan informazio gehiago jasotzea espero dute ikerlariek.

Abaunzko aurkikuntzak Nafarroari nazioarteko arkeologian eta neandertalen ikerketan toki bat eman diola azpimarratu zuten Arraitzen egindako ekitaldian.



# EZ ERREPIKATU LOROEK BEZALA



Edozein informazio partekatu baino lehen, ziurtatu kontrastatuta dagoela eta iturriak fidagarriak direla.

ezzaitzatelanahas.nafarroa.eus

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

NAVARRA : NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

# *Igoako Ostatuko Sara Crisostomo, XI. Nafarroa Elikatu Sarietarako finalista*

Nafarroako produktuak bultzatzeagatik sukaldari eta eraldatzaileak saritzen ditu urtero Navarra Capital egunkari digitalaren Nafarroa Elikatu egitasmoak, Nafarroako Produktuaren Enbaxadore Sortuberrien atalaren bidez. Igoako Ostatuko Sara Crisostomo da aurtengo sariketarako hiru izendatuetako bat.

2025eko martxoaren bukaeran hartu zuten Igoako Ostatuaren ardura Sara Crisostomok eta Bohumil Zacekek, eta bide oparoa izan dute geroztik. Izan ere, Nafarroa Elikatu Egitasmoaren XI. Sariketarako izendatu dute Crisostomo, bertako produktuen alde egindako lanagatik.

Basque Culinary Centerren ikasi eta gero, estatuko toki desberdinetan aritu zen Crisostomo ostalaritzan, baina duela urte eta erdi Igoako Ostatua hartu zutenetik, bertako sukaldean ari da buru belarri. Sariketaren antolatzaileek nabarmendu dutenez, bere kozinatzeko modua bertako eta garaiko produktuetan oinarritzen da, plater tradizionalak, garagardo artisaua eta etxeko ama orez egindako ogia eskainiz.

Cascanteko Pastas Monasterioko Eneko Ayensa izan da sariduna. Igoako Ostatuko Sara Crisostomorekin batera, Iruñeko Claro Café proiektuko Gabriela Malumbres izan da hiru izendatuetako bestea.



**OHARRA:**
**AKATSEN ZUZENKETA**

Azkeneko Pulunpe aldizkarian, 266. alean, Ultzama Kantuz ekimenaren erreportajea argitaratu genuen 28 eta 29. orrialdeetan, eta akats bat egin genuen bertan: "Etxamendi eta Larramendiren 'Otxagabia' kantan Iraizotz 60. hamarkadan salgai egon zela kontatzen denez, hori ere kantatuko dute...", idatzi genuen, baina ez zen Iraizotz izan salgai egon zen herria, Lizaso baizik. Barkatuko diguzue akatsa.

# *Ur-araztegi proiektua eta pisten erabilera murrizteko neurriak Anuen*

Etsainen ur araztegia eraikitzeko proiektua martxan du honezkero Anueko udalak. Baimen guztiak eskuratzeko bide luzea egin beharko du oraindik egitasmoak, baina hurrengo hilabeteetan eginen diren bileretan lurren desjabetzeak eta bestelako baimenak eskuratzeko lanean burubelarri ariko da udaletxea. Araztegia eraikitzkeo obren lizitazioa zabalik dago honezkero, kontratuaren balio estimatua 395.156 eurokoa delarik.

Bestalde, Anueko herri lurretara doazen pisten inguruan ere araudi berria jarri du udalak. Izan ere, urteko zenbait garaitan -onddo garaian, esaterako- ibilgailu kopuru handia ibiltzen da pistetan barrena, eta duela zenbait hurte trafiko hori mugatzeko ataka bat jarri zuen udalak. Neurria ez da nahikoa izan, ordea, eta orain, beste araudi bat jarri dute martxan: baimena duten autoek bakarrik izanen dute pistak erabiltzeko aukera, eta horretarako pegatina bat emanen zaie. Bertan erroldatuak dauden pertsonek, ehiztarien elkarteko kideek ehiza garaian, eta abereak eta lursailak inguru horretan dituztenek soilik izanen dute pegatina hori, eta beraz, pistak erabiltzeko baimena.




- PSIKOTERAPIA
- ORIENTAZIO PSIKOLOGIKOA
- ARAZOAK KONPONTZERA BIDERATUTAKO TERAPIA LABUR ETA ESTRATEGIKOA

IUZKI

- PSICOTERAPIA
- ORIENTACIÓN PSICOLÓGICA
- TERAPIA BREVE Y ESTRATÉGICA ENFOCADA A SOLUCIÓN DE PROBLEMAS

iuzkipsiko@hotmail.com Ane Buitrón (N-02107) 637 18 60 27

# *Ilarregiko lixutegia berritu dute lan babestuko langileek*

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen lan babestuko langileek Ilarregiko garbilekua zaharberritu dute.

Irailaren 7tik urriaren 14ra bitartean osatu dituzte zaharberritze obrak, baina lan handia egin dute aldez aurretik ere. Hain zuzen, sasiz betea eta ezkutatua zegoen garbitokia garbitu behar izan zuten lehenengo. Ondoren, 60. hamarkadako argazki bat eskuratu zuten Nafarroako Ondarea babesten duen Vianako Printzea instituzioaren eskutik, hark koordinatu baitzituen berreskuratze lanak. Gainera, herriarekin ere adostu zuten nola eginen zuten esku-hartzea.

Lan karga handia zela eta, zalantza zuten programaren epeen barruan lana bukatzeko denborarik izanen ote zuten, horregatik, burubelarri aritu dira, eta eguraldia ere lagun izan dutenez, lortu dute obrarekin bukatzea. Herritarrak emaitzarekin oso pozik agertu dira.

Gizarte Zerbitzuetako lan babestuko programa gizarte-bazterketako arriskuan edo egoera zaurgarrian dauden pertsonei zuzendutako gizarteratzeko eta laneratze ekimena da, apirilean hasi eta azarora arte luzatu dena aurten.





# *Urriaren 23an hasi da Basaburuko eta Imozko pilota txapelketa*

20 bikotek eman dute izena aurtengo Basaburuko eta Imozko pilota goxoa txapelketan, eta urriaren 23an hasi ziren partidak. Abenduaren 18ra arte luzatuko da txapelketa, eta astebururo jokatuko dira partidak.


Aurten ere hiru mailatan ariko dira, eta izen emateari dagokionez, bigarren mailak izan du arrakastarik handiena, guztira hamar bikote ariko baitira. Lehenengo eta hirugarren mailetan, berriz, bosna bikotek eman dute izena.

Partidak ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan jokatuko dira, Gartzarongo frontoian. Bertan egitea ezinezkoa denetan, berriz, Latasakoan edo Basaburuko beste herriren batekoan jokatuko dira.



AUTOBUS - ZERBITZU BERRIA

# Iruñea – Irun – Donostia.
# Baztan – Bidasoa – Ultzama Eremua.



## Edonon bizi zarela ere, mugi zaitezen



**NBUS irudia duten autobus berriak,** eraginkorragoak, irisgarriagoak eta doako wifiarekin.

**Ordutegi eta maiztasun gehiago.**

**Berria.**
**Eskaeraren Araberako Garraio-Zerbitzuak.**

**L-400**
Iruñea
Mugairi
Elizondo
Donostia

**L-401**
Eskaeraren araberako garraio-zerbitzuak
Baztan
Bortiziak
Malerreka

**L-402**
Iruñea
Ultzama

**L-403**
Eskaeraren araberako garraio-zerbitzuak
Lantz
Iruñea



**Ordutegiak, geralekuak eta txartelen erosketa hemen**

**Informazioa eta bezeroarentzako arreta**
607 15 12 57
info@bbumovilidad.com
**www.bbumovilidad.com**

Jarrai gaitzazu sare sozialetan

Enpresa emakidaduna

BAZTAN BIDASOA ULTZAMA MOVILIDAD

NBUS

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

# Bidaiak

## Beste aldera begiratu gabe bidaiatzea

Autobiatik Altsatsurantz noan bakoitzean, zubi baten gainean dagoen kartel batek zer pentsatua eman eta tripak nahasten dizkit: "Migratzea eskubide bat da, Bidaiatzea, gutizia bat". Bidaiatzearen eta bidaiatzeko moduen inguruan hausnarketa partekatu nahi izan du Aizarozko Gatok lerrootan

Denbora luzez bidaiatzea atseden hartzearekin, ikastearekin eta askeago izatearekin lotu nuen. Beti entzun dugu bidaiatzen duena, beste errealitate batzuk ezagutzen dituena, burua irekitzen duena, pertsona toleranteagoa bihurtzen dela. Baina gehienok egiten dugun bezala bidaiatzeak ez du bermatzen bertako errealitatea ulertzea; mugitzeak ez du esan nahi harremanak izatea, eta leku bati argazkiak ateratzea ez da leku hori ezagutzea.

Eta hemen hasten da alde deserosoa: zer paper dut nik guzti honetan? Turismoa kanpotik kritikatzea erraza da. Nire ohiturak aztertzea, askoz zailagoa.

Ostatu bat erreserbatzen dudan bakoitzean, hegazkina hartzen dudanean, paisaia bat bisitatzen dudanean edo argazki bat sare sozialetara igotzen dudanean, sistema horretan ere parte hartzen dut, modu desberdinean bada ere.


Egungo turismoa kontsumoan oinarritutako industria da. Gehiago, urrunago eta maizago bidaiatzera animatzen gaituzte, aukera hori mundu guztiaren eskura egongo balitz bezala. Hala ere, nazioarteko masa-turismoa munduko populazioaren gutxiengo bati erreserbatutako aukera da oraindik.

Orduan, zergatik hitz egiten dugu bidaiaz premia unibertsal bat balitz bezala? Neurri handi batean, bidaiatzea pribilegioa da. Gainera, nork erabakitzen du nola antolatzen den? Nork irabazten du guzti honetatik? Nork ordaintzen ditu kostuak? Zer aldaketa jasaten dituzte bisitatutako lurraldeek?

Turismoak infinituak ez diren baliabideak xahutzen ditu: ura, energia, lurzorua eta hondakinen sistemak. Presioa batez ere uharteetan edo lehorteek eragindako lurraldeetan nabaritzen da. Gainera, hotelak, portuak, errepideak eta aisialdi-guneak eraikitzeak lurraldea zatitu eta ekosistemak kaltetzen ditu. Eta hegazkinek edo gurutzaldiek igorpen eta kutsadura iturri garrantzitsu bihurtzen dute desplazamendua.

Baina dena ez da ikusten paisaian. Lan-dimentsio bat ere badago, esperientzia atsegin baten atzean ezkutatzen dena. Turismoak enplegua sortzen du, bai, baina askotan lan prekarioak, urtarokoak eta gaizki ordainduak izaten dira. Pisuko zerbitzariek, garbiketako langileek, ostalaritzako langileek, banatzaileek eta gidariek turismo-esperientziaren zati handi bati eusten diote. Logela bikain batez edo edozein ordutan erabilgarri dagoen zerbitzu batez gozatzen dudanean, ba al dakit nork egiten duen posible eta zein baldintzatan?

Bilbon, Donostian, Iruñean ere nabaritzen dugu honezkero turistifikazioa esaten zaion hori. Elkarlaneko ekonomia gisa aurkeztu ziren plataforma batzuk etxebizitzak biltzen dituzten eta etxebizitzen merkatutik ateratzen



> **“Turismoak aberastasuna sortzen duela diote, baina etekinak kate handietan gelditzen dira gehienetan”**



dituzten higiezinen negozioetan integratuta amaitu zuten. Emaitza? Alokairu garestiagoak, eraldatutako eremuak eta beren lanarekin eraiki eta mantendu duten auzoan bizitzeari utzi behar izaten dioten bizilagunak. Hiri batek ezin du aldi baterako bizitzeko erraztasun gehiago eskaini, urte osoan bertan bizitzeko baino.

Paisaia turistikoak perfektua irudi dezake, baina komeni da galdetzea: zein bizitza mugitu dira irudi hori sortzeko? Hiri bat bisitariari begira antolatzen denean bertan bizi denari begira baino, espazio komuna izaten jarraitzen du edo kontsumo-agertoki bihurtu da?

Turistifikazioa kritikatzen badut ere, aitortu behar dut ez nagoela hortik kanpo. Plataforma handien boterea zalantzan jar dezaket eta erosotasunagatik edo prezioagatik erabili. Hegazkinen aztarnaz arduratu naiteke eta normaltzat jo egun gutxi ditudanean hegazkina hartzea. Helmugen merkantilizazioa arbuia dezaket eta, hala ere, tokirik ezagunenak bilatu, sare sozialetan agertzen direnak direlako.

Turismoak aberastasuna sortzen duela eta diru asko mugitzen duela esaten digute, baina etekinak kate handietan eta inbertsio-funtsetan biltzen badira, helmugan lan egiten dutenek alokairua ordaindu ezin duten bitartean, BPGaren hazkundea ez da nahikoa ongizateaz hitz egiteko. Dirua mugitzea eta justizia banatzea ez dira gauza bera.

Lana prekarizatzen duen eta denbora libre gutxi uzten duen gizarte batean, ulertzekoa da oporrak konpentsazio gisa agertzea. Ordaindutako oporrak langile klasearen konkista izan ziren, ez dut jatorri hori ahaztu nahi kritika hau egiten dudanean. Arazoa ez da aisialdia kritikatzea, baizik eta onartzea pertsona batzuen atsedena besteen agortzearen mende dagoela: aldi baterako kontratuak, soldata eskasak, azpikontratazioa edo ezinezko lanaldiak.

Ideiarik deserosoena ere beharrezkoa da: ez naiz turismoaren kanpoko behatzaile bat, haren parte naiz eta, beraz, erantzukizuna dut. Kontua ez da betiko bidaiatzeari uztea, baizik eta automatikoki, mugarik gabe eta axolagabe bidaiatzeari uztea.

Saiatu behar dugu helmugen metaketa aldatzen arretaren bidez; presa denboraren bidez, bertako jendeari entzutea, haien kezkak eta borrokak ezagutzea, eta helmuga bat argazki bilduma batera ez murriztea. Eta, batez ere, bidaiatzea beti ona dela dioen ideia galdera zintzoago batekin ordezkatzea: zer ondorio sortzen ditu nire bidaiak eta zer behar asetzen du benetan?




> **Toki baten arrakasta turista kopuruaren arabera neurtu beharrean, bertako biztanleen bizi-kalitatearen arabera neurtu behar litzateke**

Gutxiago, gertuago eta kontzientzia gehiagorekin bidaiatzeak mundura hurbildu, nire ingurua ezagutu eta guztiontzako bizitza duina defendatzen duten borroketan parte har dezake. Nire ingurua ezagutzen dudanean, tokiak nire argazkietarako atzealde trukagarri gisa begiratzeari uzten diot, eta espazio bizi, bizidun eta mugatu gisa ikusten hasten naiz.

Banakako erabakiak garrantzitsuak dira, baina ez dira aski. Neurri politikoak ere behar dira: etxebizitza babestea, lan-baldintzak hobetzea, ostatu turistikoak kontrolatzea, hegaldiak murriztea eta hiriak parke tematiko bihurtzea saihestea. Leku baten arrakasta ez litzateke neurtu behar jasotzen duen turista kopuruaren arabera, urte osoan bertan bizi direnen bizi-kalitatearen arabera baizik.

Nire konpromisoa ez da turista perfektua bihurtzea. Kontzientzia handiagoarekin bidaiatzeak — edo ez egiteak — esan nahi du erabaki bakoitzak zer eragin duen norbere buruari galdetzea eta beste aldera ez begiratzea.

*'Gato'*



Beñat Senosiain olaguearra,
Euskadiko Aizkolari Gazteen txapeldun



Suarbeko bestetako bazkaria



Erasoko Zapatari Basaburua ttikian



50 lagunetik gora elkartu ziren Ultzamako
EH Bilduren ekitaldian, irailaren 26an



Balmasedan jokatu zen txapelketan txapela eskuratu berri, pozik, Senosiain



Jokoak Suarbeko bestetan



Gartzarongo pilota txapelketako partidak



Plaza betea, Gartzarongo pilota txapelketan



Txikienek ere gozatzeko aukera izaten zuten Suarbeko bestetan

# Etxe izenak
## eta gehiago (IV)

## Alkotzen, begira-begira

Aspaldixkoan idatzi nuen Ilarregiko eta Suarbeko etxe izenez artikulu bat, hain dira eufonikoak herri horietan etxe izenak! (Pulunpe 251, 2025eko maiatza). Gaurkoan, Alkotza jo dut, hemen ere izenez gain bertze ezaugarriren batzuk badira-eta.

Erran dezadan jende gazte eta ez hain gazteekin etxeren baten izena aipatu eta, bat-batean, ezin konprenituz bezala sumatu ditudala.

**-Badakizu non dagoen Martixenea?**

Eta aurpegia zimurtu eta dudatu ondoren, honela erran izan didate:

**-Martix erran nahiko duzu, *Casa de Martix?***

Eta horrela bertze etxe izen batzuekin ere.

Eta horrelakorik ez dugu, adibidez, Imotzen eta Basaburuan topatu, baina Ultzama alde guzian bai.

Zertan dago duda? Euskarak atzera egin duenean, nagusien izena etxearen izenaren gainetik jarri dela, hau da, bietako batek indarra galdu du eta aunitzetan bat gelditu da: nagusiaren izena.

Dena dela, gu biez ariko gara, etxearen izenaz eta nagusiarenaz, baina hau ez beti; batzuetan etxearen izena eta nagusiarena ere galdu baitira.

Hortaz, idatzi honek, orain dena eta izan dena gogoratzeaz at, izen horiek berreskuratzeko ere balio dezan nahi genuke.

**ALKOTZ**

| Etxe izenak 1727. urteko Erroldan (Auzo zirenak, bat izan ezik) | Idatziz erabiltzen genituen bezala (1) 1935 | Jabeari deitu izan zaion bezala, ahoz |
|---|---|---|
| 1.-Martixena | Martixenea | Martix |
| 2.-Lacarrena | Lakarnea | Lakarne |
| 3.-Bastaguillearena | Bastallenea | Bastail |
| 4.-Echeverria | Etxeberria | Etxeberri |
| 5.-Echetoa | Etxetoa (Maistartokia da) | Ez dakigu zein etxe den orain |
| 6.-Juanarena | Joanea | Joane |
| 7.-Maisterrena | Maisternea | Maisterne |
| 8.-Machingonderena | Matxingonea/Matxindronea | Matxindro? (Ekai) |
| 9.-Machinbarrena | Matxinbarnea | Matxinbarne |
| 10.-Apezteguia | Apeztegia | Apeztegi (Makaia) |
| 11.-Arochena (Erasorena) | Eraxonea | Eraxo |
| 12.-Pintorena | Pinttonea | Pintto |
| 13.-Gurasorena | Guraxonea | Guraxo? |
| 14.-Martingorena | Martikonea | Martiko |

Ondoren badira zenbait maistartoki, beren maisterrekin. Eta **Eliza** eta **Apezetxea**, jakina. Eta ez gaitezen errotaz atzendu. Alkozko eta Iraizozko auzoena dela dio.

### 1727a geroztik egin etxeak:

**Gurutzenea.** 1735ean egina Martin Sala Elizondok, auzoa. Beheiti xehetasun gehiago.

**Sastrenea**. Lourdes Iraizotzen ariora ematen du 1750. aldera egina dela, auzoa. Joan den ehun urtean **Uzterri** esaten diote, uztargilea bizi izan zelakoz.

**Ostatua** (1744. egina ote den dio Lourdesek)

**Eskola**: XVIII. mendearen bukaeran edo XIX. hasieran egina.

Eta XIX. mendean **Argiñenea**, **Zurgiñenea** (Apeztegikoa zen) eta bertze batzuk. XX. mendekorik ez dugu aipatzen.

### Nola erraten diren ahoz

Ahoz, Bastallénià, Maistérnià... horrela ibiltzen ditugu, **-ea** bukaera horiek **-ia** egiten ditugu gure alderdian. Eta bestaldetik, gure alderdian, etxe izenak azentuatzean, bi azentu mota ageri dira, alde batetik Ultzama, Odieta, Lantz, Anue, Atetzen, eta bertze aldetik Basaburua eta Imotzen, Muskitzen izan ezik, honetan Ultzaman bezala egiten baitute. Ultzamaldean, Joankòneá eta Basabarua eta Imotzen, Muskitzen izan ezik, Joankónea**à**. (azentu printzipala beltxez jarri duguna da)

### Zenbait etxe izenen esanahia (zailenak edo bereizienak jarri ditugu)

**Martixenea**: Martin eta Martie, izen bera da. XVI. mendean eta lehenago, Martie delako izen hori asko ageri da paperetan. Marti**x**, berriz izen horren ttikikagarri da. Martixene franko bada bazterretan, esaterako gure alderdian Alkozkoaz at, Iraizotzen eta Oskotzen. Eta Larraunen Baraibarren.

**Lakarnea**. Lakar deritzan herria bada Nafarroan, baina Nafarroa Beherean, berriz, **Lakarra** dugu. Eta Iparraldetik hainbertze jende etortzen zenez garai batean, beren herriko deitura zutelarik gehienetan, pentsatzen dut Lakarra herriaren izenetik datorrela.

**Bastagillenea**: Abreendako basta edo pastak egiten zituenaren ofiziotik dator.

**Matxingonea /Matxinbarnea**. Hor Matxin goienekoa eta Matxin barrena edo behekoa ageri dira. Hor, hala ere, bertze modu batez ikusi izan dugu paperetan lehen izen hori: **Matxinkonderena** eta hortik, dudarik gabe, **Matxindronea** herrian erraten duten bezala. (Bertze adibide bat: Arraitzen euskaldunek **Kondearena** etxeari **Kondrenia** (sic) esaten diote)

**Pinttonea**: Erretaulen egilea eta pintorea. Pintore ofiziotik dator Pinttonea. Pintore hau Domingo Muskitz eta Hernandorena zen, Muskizko **Etxeberriko** kasta.

**Gurutzenea**: Aspalditik nuen buruan Oskozko **Gurutzenea** etxea eta banekien ez zela Gurutz delako batena zelako, hemen ez baita izen propioetan **Gurutz** erabilti **Kruz** baizik. Eta hara, orain urte batzuk Oskozko paperetan non ikusten dudan: *una casa en el termino de Gurutzea dena!* (Gurutzea den tokia, alegia) **Gurutzeadena**-tik **Gurutzenea**, arauak manatzen duten bezala.



*Gurutzeneko etxea eta bere grabatuak*

# Etxe izenak
## eta gehiago (IV)

Misterio ttikittoa azaldua. Eta bide beretik da Alkozko hori ere, bertako batek aipatu baitzidan hor izaten zen gurutze baten berri.



### BASERRIA. ZER DA BASERRIA? NON DAGO BASERRIA?

Alkozko **Baserria**, herritik kanpo egin ziren etxe multxoa da, ugaldez bertze aldera. XIX. mendean egin ziren etxe hauek. **Lakarnea** (lehen herrian zen, Gurutzenea ondoan, baina erre eta berria hemen egin zuten) **Balda, Benito, Erresidentzia**... ondoren asko egin dira.

Baserria Gipuzkoan etxe bakartuei deitzen diete. Baina, hara, hemen, **Baserria** herritik aparte den etxe multxoari. Lantzen ere badute **Baserria** deitzen dena. Alkotzen galtzen ari da "Baserria" deitzea eta Lantzen gehiago. Barrio edo esaten dio jende gazteak. Zergatik euskarazko hitza utzi? Ez al du merezi gurea gordetzea?

*Txurdan*

### ITURRIAK

***Nafarroako Errege Artxiboa***

***Ultzamako 1646ko Errolda.***

***Ultzamako 1727ko Errolda.***

***Udaleko errolda, 1910ekoa.***

***Lourdes Iraizotz eta Javier Saguesek Ultzamako genealogiaz egindako bi liburu mardulak.***

***Zenbait herritarrengandik jaso izan dugun informazioa.***

***(1) Idatziz horrela egiten dugu eta egin behar da. Ahoz bertzerik da.***

## Gurutzenea (Zoragarria egin zait)

**Gurutzenea Gurasoneko semea zen Martin Sala Elizondok egin zuen 1735. urtean. Orain Xala deitzen diote.**

**Eta harrigarria, etxe honek bi harritan du jarria nork eta noiz egin zen.**

**Eta berrienean, goiti, honela jartzen du: ESTA CASA SE REDIFI-/CO SIENDO DUEÑO AN-/TONIO URROZ AÑO 1878.**

**Zaharrenean, goikoari itsatsia, honela jartzen du: MARTI-N DE SALA-C EGUINA 1735.**

**Harrigarria egin zait aipu zaharrena euskaraz izatea, oso harrigarria, hau da Martin de Salak egina. Gustatzen zait harrietako etxeetako idazkunak irakurtzea eta beti erdaraz dira. Honako hau dut lehena eta azkena euskaraz topatutakoa (XVI, XVII eta XVIIIgarren mendeetakoetan)**

**Agindu bat balitz bezala, den-denek erdaraz jartzen zuten, Jainkoak agindu balu bezala, baina horrek badu bere zaina. Zain horri bertze batean helduko diogu.**

**Eta nor izanen ote gure hizkuntzan jarri zuen euskaldun peto hori? Dirudienez agota bat, agotak baitziren salatar horiek. Larrasoañan sortua, baina Alkotza errotari Elbetetik etorri zen eta gero Gurasonea erosi, 1720. urtean gora-behera (Agotak eta errotariak, behin baino gehiagotan elkarrekin zihoazen Sala kastakoak bezala)**

### Hiztegia

**Auzo:** Bezindadea zutenak edo auzo zirenak, etxe eta lurren jabeak izateaz gain, bazituzten deretxo batzuk maisterrek ez zituztenak. Bertze aldi batean kontatu beharko honetaz zerbait.

**Mendea=gizaldia:** siglo.

**Nafarroa Beherea:** Pirineoz bestaldean, Gaztelak Nafarroa konkistatu ez zuen partea.

**Abrea:** Hemen behor- mando aziendari deitzen zaio.

**Barrena:** Behekoa erran nahi du, bertze adiera batzuez gain. Alkotzen hor dugu, esate baterako, Oianbarrena erreka, oihanetik datorrena, beheitiko oihaneko ugaldea, alegia.

**Araua:** regla

Kolaborazioa
BLA BLA

# Iñaki Artola Izagirre, euskaldunondako ispilu ederra (I)

Pilotari profesionaletan jende abegikorra eta jatorra ikusten duzu. Elkarrizketa bat edozeini egin dakioke. Hala ere Iñaki Artola dela denetan gailen esanen genuke. Eta bere euskararen naturaltasuna eta gozotasuna? Bai, bai, gu euskararen inguruan mugitzen gara eta hortaz Iñakirekin iritzi trukaketa bat egitea pentsatu genuen

Iruñean karrikan topatu eta bertze egun baterako gelditu ginen berarekin. Azkenean telefonoz galdetu eta bat-batean, eta galdera guziei, erreskan, erantzun die. Barnean zuena bota digu eta almazena ongi betea zuela erran behar. Hemen duzue lehen partea.

Oharra: Bere euskararen kalitateari antzemateko, grabatu bezala transkribatu dugu. Deus aldatu gabe.

*Ultzamaldeko Ezpela euskara taldea*

## Etxean euskaraz hitz egitearen inportantzia

**Iñaki, euskaraz oso-oso ongi eta dotore mintzatzen zara. Zure etxean euskara soilik jolas eginen zenuten dudarik gabe. Eta herriko karriketan ere bai? Dena dela, zure aldetik zerbait jarri beharko zenuen, ez da hala?**

Etxean euskaraz hitz egitearen edo ez hitz egitearen inguruan berriz, duela gutxi ikerketa batek garbi erakutsi du zure ama hizkuntza ez den hizkuntzan hitz egiteak, ahalegin handia eskatzen duela eta ez dela batere erreza. Nik alde horretatik euskara ama hizkuntza izan dut eta ez zaigu inoiz zaila egin, guk errazena egin dugu, guretzako zaila espainolez hitz egitea eta ikastea izan da. Gu etxean euskaraz aritzea errazena izan da, ez dugu meriturik alde horretatik; meritua dutenak izan dira gutxi edo gehiago euskaraz hain natural egin ez arren, hala ere, egitea aukeratzen duten horiek: Nik pilotako kasua ikusten dut, adibidez, horretan iduritzen zait pilota mundua eredu on bat izan litekeela. Ni pilotari izan naizenetik, bilakaera ona izan da eta nola euskaldun dexente gauden, etxetik euskaldunak ez direnek ere nola, txikiagoa edo handiagoa, baina erabaki konsziente bat hartzen duten, bai beraien artean eta, adibidez, komunikabideen aurrean ere euskaraz egiteko, ezta? Nik batik bat, bigarren erabaki hori asko baloratzen dut.

## Euskararen kontua serio hartu behar da

**Bukatzeko, gogoraraziko dizue-Zure etxean, beraz, murgiltze eredua erabili dute, osoki euskaraz hazi zaituzte. Eskoletan ere ez zaizu iduritzen murgiltze eredua erabili beharko litzatekeela beste moda batzuk baztertuz?**

Murgiltze ereduari dagokionean nik ezin dizut hor ezer inportanterik erantzun, ez naizelako aditua, nahiko urrun geratzen zait eta. Baina esan nezakeen bakarra da, herritar bezala, euskaldun bezala eta guraso bezala, beste bariable asko kontutan hartzen saiatzen garen bezala, zaurgarritasunarena eta abar, euskararena ere SERIOSKI kontuan hartu eta aplikatzen hasi beharra daukagula; horrekin ez dut esan nahi orain arte ari ez garenik, baina aditu guztiak ari dira esaten orain artekoak badirudiela ez direla nahikoa izan, eta ez dela batere positiboa etorkizunera begira.

Arazoak eskatzen duen mailako neurriak hartu beharko direla hizkuntzan eta bai alor guztietan. Hortarako adituei kasu egin beharko zaie, eta adituak badira gaur egun soziolinguistikaz dakien jendea eta nik uste horiei entzun behar zaiela, hor badago halako jakintza bat edo zientzia bat hizkuntzaren bilakaerari eta ezaugarriei dagokiena, eta nik uste horiei SERIOSKI entzutea eta kasu egitea tokatzen dela.

Eta honetan utziko ditugu lehen bi galderei Iñakik eman erantzunak. Hurrengoan bukatuko dugu Iñakirekin izan iharduki telefonikoa. Iñaki, urren artio!!!

# Oh, my god!

Oh, my god! Ene jaungoikoa! Azaroko programazioan gaur puri-purian dauden gai batzuk jorratuko ditu, hala nola etxebizitzaren arazoa, etxegabetzeak (gaurkoak eta antzinakoak, hau da, inmatrikulazioak), matxismoa... Antzezlanak, emanaldiak, helduentzat, haurrentzat, liburu gomendioak... Beti mugan -gure gaurko gomendioa bezala- kulturaren alde!


Azaroko programazioa familia jarduera batekin hasiko dugu. Abenduaren 3an izango den Nafarroaren eta Euskararen Eguna ospatzeko Euskarabideak antolatu dituen ekintzen artean, Gora Gora Fest! jaialdia dugu, Ultzaman geldialdi bat egingo duena antzezlan honekin:

**Sophie Germainen teoria**

Hau ez da ipuin txinatarra, ez horixe! Sophieren teoria ipuin bat baino askoz gehiago da. Benetako istorioa da, bidegabea eta sinestezina. Gainditzekoa, ahalegintzekoa eta ia zientzia fikziozkoa. Izan ere, Tdiferenciaren proposamen berri honek Sophie Germainen (zenbaki lehenei edo elastikotasunaren teoriari buruzko ikerketa nabarmenak egin zituen matematikari frantziarra) istorioa berreskuratzen du. Ilea eta bularra ezkutatu eta gona erauzi zuen. Liburuak irentsi eta likidoak isuri zituen, behatu eta entzun. Baina sekula ez zuen lortu erabat harrapatzea... Sophie emakume jaio zelako eta garai hartan –"duela ehun bider bi gehi berrogeita hamar"– haiek ezin zutelako ikasi. Garai hartan, jakinduria gizonen kontua baino ez zen. Eta Monsieur Leblanc bihurtu behar izan zuen. Zorionez, gauzak aldatu dira. Eta orain, herrialde askotan, batzuek eta besteek ikasteko, prestatzeko, ekiteko eta amets egiteko eskubide bera dute. Borrokan jarraitu behar dugu horrela izan dadin mundu osoan. Emakumeen ahalduntzeari eta berdintasunaren aldeko borrokari buruzko istorioa da, matematikari temati baten lorpenak nabarmentzen dituena eta emakumeak zientzian duen papera balioesten duena.

Antzezlana ipuin kontaketa antzeztua da, 5 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta, eta 45 minutu irauten du. Azaroaren 6an, Larraintzarko bentan (Gizarte Etxea) taularatu zen, 18:00etan



**Oh, *my god!* Etxebizitza eta inmatrikulazioak**


Hurrengo ostiralean, azaroaren 13an, pil-pilean dagoen gai bat aztertuko dugu hitzaldi batean: Haritu etxebizitza sindikatuko kideek etxebizitzaren arazoaren inguruan mintzatuko digute. Eta azaroaren 20an, beste gizarte-arazo bati heltzen dion antzezlan bat izanen dugu, atzeatik luzaroan egon garena eta azkenean gure Kultur Etxean aurkeztuko duguna: Inmatrikulazioak. *Oh, my god!* Bi aingeru inozo dira antzezlan honetako zeremonia- maisu. Zeru-goitik sinesgaitz behatzen dute meza-mutilek, apezpikuek, apaizgaiek eta funtzionarioek nola kudeatzen duten tenpluen eta finken immatrikulazioa. Loteria berezi bat, non zortea elizbarrutiaren arabera doan eta sari nagusia Kordobako Meskita den.

Nafarroako Amico Teatro antzerki-taldeak umorea eta satira erabiliko ditu, erlijio-sinesmenarekiko errespetutik, Eliza katolikoak egindako ondasun higiezinen immatrikulazioak salatzeko. 14 urtetik aurrerakoei gomendatuko lana da eta Larraintzarko bentan izanen dugu azaroaren 20an, 19:00etan. Merezi du benetan!

Bukatzeko, azaroaren 27, baina kasu honetan Eritzegoitiko Kuktur Eskolan, emanaldi bat izanen dugu: *Liliak loratiz*, Haizea Loiraren eskuz. "Indarkeria matxistei musika eta hitzak", du izenburua emanaldiak eta ikusezina ikusarazteko asmoz ahotsa eta gitarra ardatz dituen errezitaldi musikatu bat da, hainbat pertsonen testigantzak, olerki eta kantuekin osatuz. Testigantzak jasoak izan diren jatorrizko hizkuntzan transmititzen dira eta emanaldia batik bat euskaraz da.

**Liburu Gomendio bat: *BETI MUGAN* (Ruben Ruiz)**

Amaitzeko, Aizarotzen bizi den egile baten, Ruben Ruizen liburu bat gomendatzen dugu: *Beti Mugan*. Liburua euskarazko irakurketa klubaren azken saioan irakurri dugu eta egileak komentatu digu. *Beti Mugan* eleberri historikoa eta abenturazkoa da, eta Comete sareari buruz hitz egiten digu, bigarren mundu gerran aliatuen hegazkinlariei naziengandik ihes egiten lagundu ziena, eta, era berean, urte haietan inguru berean lan egiten zuten kontrabandista nafarrei buruzkoa...




Elkarri lotutako bi istorio, Baztanen eta Ultzamadean, besteak beste, kokatua. Alegia mugan, beti mugan.

*Patxi Irurzun*

MANTENTZE – LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARI KOLAR ELEKTRIZITATEA

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

# Nahiz euskaraz jakin ez...

## (*Non demontre bizi gara?*)

Hitzetik hortzera, besterik gabe, bat-batean, beste ezer idatzi baino lehen, zapla, hemen duzu Txirrita zenaren bertso famatuetako bat:

Larogei urte gaiñean ditut
nago hanketako miñez,
Donostiara etorria naiz
herren haundia egiñez.
Bi bastoirekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez.
Euskera ia ahaztu zait eta
erderarikan jakin ez,
maixu batekin eskolan laster
hasi behar det latiñez.

Donostian, 1935ean ospatu zuten Bertsolari Egunean bota zuen Txirritak bertso hori. Han ziren bertsolari guzietan zaharrena bide zen, 74 urtetan sartua. Euskara goratzeko bertso bat eskatu eta hori bota zuen gure hizkuntzaren beherakadak bihotzean min ematen baitzion.

Zaharturik eta maingu, elbarriturik eta minez josirik, baina umorez eta jakinduriaz beterik, eta ironia finez! Irakurtzen zerbait, idazten deus ez. Eta, hala ere, bertso horretan dagoen jakintza ikusiz, lehengo eta oraingo **pedagogoek** baino mila aldiz gehiago ez ote zekien nago.

Bai, irakaskuntzan, aspaldiko urteetan **pedagogia** besterik ez da entzuten. Eta **metodologia berrien** onurak. Eta zer esan kanpoko hizkuntzak haurra jaio orduko sartu behar horretaz?

**Eleaniztasuna** deitzen diote horri, hiru-lau hizkuntza batera ikasteari, alegia.

Baina kontxo, halako batean pixa etorri zaigu gainera, alegia, pixa eta PISA. Prisa hartzeko tenorea ote? Pixa? Garbiago hitz egiteko, GERNUA esanen nuke, gernueria erabat gurekin ez badugu behintzat.

PISA, munduko erresumetako gaztetxoen ikasmaila neurtzen duen programa. Ikasmaila eta bilakaera. Eta Espainian kontuak oker atera dira, oso oker: gero eta gutxiago dakitela haur eta gaztetxoek. Eta Hego Euskal Herrian Espainian baino makurrago gaudela gainera; hori dio PISAk, nahiz EAEko eta Nafarroako eskoletan diru askoz gehiago sartu.

Dena dela, hori jakiteko, ez zegoen mundu mailako kontu emate honen zain egon beharrik, haurrekin eta gaztetxoekin hitz egitea besterik ez genuen. Oker eta makur handiak eta hutsune beldurgarriak atzemateko begiratzea, ikustea eta entzutea besterik ez baita behar. PISAk baino lehen bagenekien, baina urtetan esan izan zaigu itxoiteko, fruituak etorriko direla. Eta hau da emaitza!!!!

Euskara atzendu zaigu erabat, gazteleraz irakurritakoa ere ez bide dugu ulertzen, eta ingelesez nahi! Bitartean hor ibiliko gara hitz arranditsuekin ikasketak nola izan behar duten eztabaidan: *konpetentziala, zeharkakoa, inklusiboa, euskarria, emozionala*...eta, horiek denak aski ez, eta ingelesez jaio orduko, gure hizkuntza nazionala baztertuz.

Bide ederra pedagogia berri hauek ekarri digutena: matematika eta



*Westminster Jauregia Londresen, ederki argiztatua, Erresuma Batuetako Parlamentua. Mundu guzian barna, hainbeste sarraski, hilkintza eta genozidio bideratu zituzten Jauregi honetan. Inperioak hala izaten dira.*

zientziaren gainbeherarekin batera gure hizkuntzaren porrokatzea. Txirritak orain 90 urte garbi zuena, pedagogoek nahasi digute erabat.

Eta beti hala izan da eta orain ere hala da: hitz berri arranditsu gehiegi, ia ulertezinak, jakina baita gezurra estaltzeko behar beharrezkoa dela hitz uholdea!

Eta ingelesa jaiotze beretik, PAI delakoari haize eman, eta umeak Ingalaterrara, bertako doinu eta azentua ikastera.



*Artola, pilotari bikaina. Bertsotan Txirrita zalea ote dugu?*

Eta ia atzendu ere atzendu zait, eskola zoriontasunaren kabia behar omen du. Beti izan da ikasteko tokia, hau da, ikastola; baina orain ez, zoriontsu hazteko tokia (ez hezteko) omen da. Zer, geren ezinak, frustrazioak eta zoritxarrak atzentzeko erremedioa ote ditugu bihurtu gure umeak?

Gurean ardo mindu eta hondoraino ozpindua, etxean gorde nahi dugu, estolderian behera bota beharrean.

Bai, zinez esaten dizuet, *maisu batekin eskolan laster hasi behar dut latinez.*

*Txurdan*

**Oharra:**

1.-Alemanian haurrak 9 urtetan hasten dira ingeles ikasten; lehenik beren hizkuntza ongi txertatu behar omen zaie haurrei. Arrazoi betea, gurean ere balio beharko lukeena eta Alemanian baino arrazoi gehiagoz gainera.

2.-.Badira urte batzuk PAI hori kendu zutela Madrilen, Castilla-Leonen, Murtzian...emaitzak ikusiz. Bitartean gurean, PAI, ingelesa, frantsesa eta txinera.

## Hiztegia

**Herrena**: maingua

**Txit**: oso

**Pedagogia**: Haur hezibidea, haurrak hezteko jakintza. (Hezi=educar)

**Irakaskuntza**: Enseñanza

**Onura**: beneficio, provecho

**Gernua**: bertako hizkera ere bada. Pixa da, baina jendearen pixaz ari gara. Hitz jasoagoa bezala da.

**Erresuma**: Reino. Baita nazioa esateko ere erabiltzen da.

**Atzeman**: harrapatu. Iparraldeko hitza. Ez nahasi antzeman hemengo hitzarekin.

**Emaitza**: resultado

**Arrandia**: hitz harro eta funtsik gabea, eta hortik arranditsu. Hemengoa ere bada hitz hau

**Ulertezina.** Ulertzeko zaila dena.

**Uholdea**: Inundación

**PAI**: "**P**rograma de **A**prendizaje de **I**ngeles" esan nahi du. Haurrei ematen zaien ikasteko bide bat da; eta gaztelerarekin batera ingelesez emandako asignaturak edo irakasgaiak sartzen dituzte. Euskararen kontra egiteko erabili izan da Nafarroan, eta erabiltzen da.

**Hazi/hezi**. Bi gauza diferente dira: hezi gehiago da edukatu edo.

**Estolderia**: alcantarillado




# Sara Iraburu, ilustratzailea

## “Pertsonaia historiko batetik abiatzen naiz baina proiektu pertsonal bat da, nire burua ezagutzeko”

Sara Iraburu García ilustratzailea Dublingo Arte eta Diseinu Unibertsitate Nazionalean lau urteko ikasketak amaitu berri ditu eta Ilarregira, jaioterrira, bueltatu da. Itzulera egiteko zubi ederra eraiki du: Maria, sua aurretik ikasketa amaierako lana. Han aurkeztu zuen ekainean eta orain, Ultzaman. Maria Juana de Anotzibar odietarraren historia hartu du oinarri, 1575ean sorginkeria egotzita, Iruñean eraila.

Ilarregiko Apezetxean jaio zen Sara Iraburu García (25 urte) eta Madrilen eta Irlandan 7 urte eman ondoren itzultzeko hautua egin du. Gaztetxotik bilatu du beste zerbait. Irlandan egin zuen DBHko laugarren maila, hemengo hezkuntza sistematik ihesi. Gero, Iruñean Batxilergo Artistikoa eta bi urtez ikasi zuen Madrilen, goi mailako Diseinua eta Fotografia Arte 10 eskolan.

Ilustrazioak kanpora eraman du, baina zerk eraman du diseinuaren arlora?: “Irakurtzearekin edo zenbakiekin lotura duten gauzak ez ditut ongi prozesatzen eta horregatik irudien bidez pentsatu izan dut beti. Adibidez, hiru eta bi batuketa egiteko bi pilota eta hiru pilota imajinatzen ditut, baina 450 mila zati bi zailagoa da imajinatzen (irriak). Horregatik gaizki pasatu nuen eskolan. Irlandara joatea horretatik ihes egiteko modu bat izan zen. Orain mundua ulertzeko gustatzen zaidan modu bat da, adiskidetu egin naiz nire parte horrekin”. Familiarengandik ere zerbait jaso du, aitonarena zen argazki makina zahar batekin oso gaztetatik hasi zen fotografian; eta Pablo Iraburu dokumental egilea du aita. Mikrofonoen eta kameren artean hazi da: “Ondoan izan dut beti, behar izan dudan guztietan laguntzen. Aita erreferenterik handiena da. Bestetik, amak sentitzen irakatsi nau. Gauza txikietan arreta jartzen, oso sensiblea da. Bien arteko nahasketa bat naiz, zorionez! (irriak).



Sara Iraburu

> “Prozesua askoz gehiago interesatzen zait (emaitza baino), gauza guztietan”

**Larraintzarren aurkeztu duzuna zure ikasketen amaierako lana izan da**

Kanpoan denbora luze egon ondorengo eta etxera itzultzeko trantsizio horren zubia izatea nahi nuen. Nire buruari galdetzen diot hemengoa izatea zer esan nahi duen, zeintzuk diren ezagutzen ez ditudan historiak. Hutsune hori urteekin areagotu da eta horregatik arlo pertsonalera eraman dudan proiektu bat izan da. Aitzakia izan da jaioterriarekin eta sustraiekin berriz lotzeko.

**Maria Juana de Anotzibarren historia, zergatik?**

Txikitatik asko gustatu izan zait euskal mitologia, aitonak kontatzen zizkidan historiak. Bestetik, amona belarren oso zalea izan da beti eta sorgina zela esaten zidan. Ez ziren gaiztoak, zenbait gauzetarako sentsibilitate berezia duen pertsonaia baizik, natura ongizatea bilatzeko erabiltzen duena. Hemengo sorginen inguruko

informazioa bilatzen hasi nintzen, ni sorgin batetik natorrelako eta horrekin lotzea interesgarria iruditzen zitzaidalako. Nafarroako Artxiboan Ultzamaldeko dokumentu batekin topo egin nuen, Maria Juana Anotzibarkoarena. Baina geroz eta gehiago bilatu geroz eta detaile gehiago aurkitzen nituen berak jasandako torturen inguruan, berari buruz esan zutena, asko dakigu bere amaieraz baina ezer gutxi berari buruz. Eta horrek amorrua ematen zidan. Ikertzen ari naizen pertsonarekin konektatzea bilatzen dut: hile luzea izanen zuen imajinatzen, begi marroiak izanen zituen, lohiak nazka emanen ote zion, beharbada ez zitzaion mamia gustatzen... proiektua inpotentzia horretatik jaiotzen da.

**Nola bete zenuen hutsune hori?**

Nire bizitzan oinarrituz imajinatu dut berea. Inguru berean hazi gara eta hemen denok eskalatu dugu zuhaitzen bat, gurasoek bronka bota digute goitik behera zikin-zikin eginda etxera itzultzeagatik, garai batera soilik mugatzen ez diren une horietan oinarritu naiz, berarekin komunikazio bide bat jorratzeko. Nire proiektua ez da historikoa, pertsonaia historiko batetik abiatzen naiz baina proiektu pertsonal bat da nire burua ezagutzeko. Zenbat erre zituzten kontatzea baino interesgarriagoa iruditzen zait pertsona gisa omentzea, bere haurtzaroa iradokitzea. Hilik gogoratu ordez, bizirik.



Maria sua aurretik Dublinen

**Marrazki tradizionalagoak espero genezake**.

Pertsona bat izan zen heinean ume bat ere izan zen noizbait, haurtzaro bat utzi zuen atzean. Horregatik nahi nuen zerbait xumea edo lañoa egin. Sorginkeriaren garaiko iruditeri guztia oso iluna da, suak bakarrik ematen du argia eta beldurgarriak izan ohi dira. Nik ekarpen bat egin nahi nuen, nire estilotik. Espazio hutsa paper txuri batean argitsua izaten da eta hori metafora gisa erabili dut, lehen aipatu dugun hutsune horretatik abiatuta. Gabezia horretatik lan egin dut, borragoma erabiliz, izan ere papera ikatz-ziriarekin bete eta borragomarekin kenduz marraztu dut. Ikatz-ziria ere egokia zen, zuhaitza izan da noizbait, bizirik egon da baina hil den zerbait bezala ikusten da, iluna eta zikintzen duena. Trazu horretan zuhaitzaren zati txiki bat besterik ez dugu. Beraz, materiala perfektua zen: bizitza, heriotza... heriotzaren bitartez bizitza sortu dezakezu. Metafora perfektua iruditzen zitzaidan. Horrekin lotuta ere, zuhaitz asko agertzen dira. Izan ere, Anotzibarren nengoela 1500. urteko ezer gutxi gelditzen zela ohartu nintzen. Hemengo edertasuna eta gauzarik zaharrena mendia eta natura bera dela konturatu nintzen. Oihana, mendixkak... hori apenas ez da aldatu. Polita iruditzen zitzaidan bera hazi zen eta ni hazi naizen ingurua berdina izatea, edo antzekoa.

**Webgunean prozesuak jasotzen dituen atal bat duzu. Garrantzia ematen diozu.**

Garai hauetako gai nagusia Inteligentzia Artifiziala da eta ni oso kontrakoa naiz. Orain emaitza azkar bilatzen dugu eta gauzak egiteko modua gehiago baloratu behar da emaitza baino. Eskuz egindako gauzek prozesu bat eta lan bat dute atzean, batzuetan inora eramaten ez zaituena eta uste dut hori dela gizaki egiten gaituena, akatsak egitea. Nik erakusketa ikusterakoan harro nago, baina harro nago pasatu izan dudan guztiarengatik, emaitzarik izan ez duten ideiengatik, tartean pasatu nuen ezinegonarengatik, aurrera nola jarraitu ez nekiela, eta horren ondorengo saria da. Prozesua askoz gehiago interesatzen zait, gauza guztietan. Momentua da gauzei denbora gehiago eskaintzeko eta bidea disfrutatzeko.



**Azules**

Madrilen ikasten ari zela covidarekin gaixotu eta konfinatu zutenean ikasle erresidentziako kolektibo berezi baten laguntza izugarria izan zuen: garbitzaileena. Haiek omentzeko, bertako paretetan betirako gelditu den Azules erakusketa osatu zuen:

"Atea jo eta beti galdetzen zidaten zerbait behar ote nuen, zer moduz nengoen... hor egotea, ni zaintzen, izugarria iruditu zitzaidan. Asteak generamatzan emakume berberekin hizketan eta haien inguruan ezer ez genekien. Itxialdia amaitu zenean korridoreetan ikusten nituen, jendez inguratua eta jendeak ez zien ezta agurtu ere egiten. Ikusezinak ziren. Maria Juanarekin bezala amorru izugarria eta zerbait egiteko beharra sentitu nuen, haien historia argitara atera, zerbait esateko".

# Pilota

## Urteak pasa eta gero, Basaburuak berriz du Pilota Eskola

Urteak ziren pilotan aritu nahi zuten Basaburuko haur eta gaztetxoek inguruko herrietara joan beharra zutela: Larraintzarra, Lekunberrira, Irurtzuna... iaz, ordea, bailarako hainbat umek pilotan aritzeko gogoa zutela eta, gurasoak mugitu eta Basaburuko Pilota Elkartea martxan jarri zuten. Eneko Legarrarekin elkartu gara proiektuaz gehiago jakiteko

Oihanzabal Pilota Eskola egon zen martxan bere garaian Basaburuan, baina urteak ziren funtzionatzen ez zuela. "Lehengo urtean haur batzuk pilotan hasteko gogoz zeuden, eta afizioa berriz pizten ari zela ikusita, aurreko elkarte hura berrartu, izena eta pertsonak aldatu eta berriz pilota eskola abiatzea pentsatu genuen", adierazi du Legarrak. Basaburuko Pilota Elkartea izena jarri diote, eta 8å10 bat haur eskolan ari dira entrenatzen, Jauntsarasko kiroldegi atzeko pilotalekuan.

### Futbolaren nagusitasunaren aurrean, pilotari tokia egiten

Futbola, igeriketa, BTTa... kirol eta bestelako jardueren aukera asko dituzte Basaburuko haur eta gaztetxoek inguru hurbilean, eta pilota eskolak ere badira ondoko bailaretan, baina eskualdean bertan eskola martxan jartzearekin haur gehiago animatzeko erraztasunak jarri nahi izan dituzte eskolaren bultzatzaileek. "Adin eta maila desberdinetako ume eta gaztetxoak elkartu dira Basaburuko Pilota Eskolan, sei urteetatik hasi eta 11 urteak arteko jokalariak ditugu momentu honetan", dio Legarrak.

Iaz hasi ziren klaseak ematen, Eltzaburuko Imano Soto entrenatzailearekin. "Ostiraletan entrenatzen zuten lehengo urtean, ordubetez, baina aurten gehixeo ari dira entrenatzen", azaldu du eskolako kideak. Ostiraletan ordu eta erdiko entrenamendua egiten dute, eta bi astean behin, astelehenetan, beste saio bat egiten dute. "Aurten bizpahiru haur berri animatu dira eskolan izena ematera, eta hasierako mailan daude, horiekin entrenatzailea pixkat irakasten eta martxa hartzen ari da", azaldu du. Astelehenetan, berriz, Josu Irurita aritzen da entrenatzaile gisa. "Arratsaldeko 16:00etan, umeak eskolatik ateratzen direnean, haien bila pasatzen da eta zuzenean joaten dira frontoira", dio.

Gartzarondarrak azpimarratu duenez, ateak zabalik dituzte eta eskolan izena eman nahi lukeen edonork **basaburuapilota@gmail.com** helbidera idatzi dezake. Mometuz, ikasle guztiak eskupilotan ari dira, baina Legarrak azaldu du beste edozein modalitatetan jokatu nahi duten haur eta gazteak baleude, horretara ere guztiz irekita daude.



**Nafarroako Pilota Federazioaren parte**

Lehengo urtean abiatu zuten Basaburuko Pilota Elkartea eta klaseak, eta lehenbiziko ikasturtea ikasteko eta martxa hartzeko aprobetxatu zuten. "Haurrek klaseak jasotzen zituzten lehenbiziko aldia zen, beraz, oinarrizko mailatik hasi ziren, eta iaz ez zuten partidarik jokatu", azaldu du. Ikasturte bukaeran egin zuten debuta pilotariek, Basaburuko egunean, eta horren ondotik, Basaburuko hainbat herritako pestetan ere jokatu ditzute partidak: Gartzaronen, Igoan, Berueten, Orokietan... "Udan franko jokatu dute, eta txirrinta hori sartu zaie: txuriz janztea, gerrikoa jartzea, inguruan jendea izatea, epaile bat egotea... guzti horrek ilusioa egiten die, eta oso kontent daude", gaineratu du.

Aurten, ordea, iazko entrenamenduen ondoren maila hobexeagoa dagoen horretan, Nafarroako Pilota Federazioan izena ematea erabaki du elkarteak, eta jokalarien fitxak ere eginen dituzte. "Federatutako jokalariek seguro bat ere izaten dute, minik hartuko balute edo edozein gauza gertatuko balitz kubritzen dituena. Horrez gain, federazioko txapelketetan parte hartzeko aukera ere izanen dute pilotariek", gehitu du gartzarondarrak.

Izan ere, txapelketa pribatuetan parte hatzeko aukera bazuten bestela ere, baina federazioko txapelketetako aukera gehituko zaie orain.



> “Gartzarongo Pilota Txapelketako finalen aurretik jokatuko dituzte aurtengo estreinako partidak eskolako haurrek”

"Nahiko animatuak daude, beraz, federaziotik txapelketen berri ematen digutenean umeei esanen diegu, eta aritu nahi duena, aurrera!", dio. Adin eta kategoria bereko bikoterik Basaburuan egonen ez balitz, inguruko beste klubetako jokalariekin osatu ditzakete bikoteak.

Pilota eskola bultzatu duten gurasoak pozik daude bi ikasturte hauetan izan duten erantzunarekin. Aurten, 8 eta 10 ume artean ari dira eskolan parte hartzen. "Uste dut kirol polita eta sanoa dela pilota, eta pentsa, askotan futbolak xurgatzen du dena, baina hemen ez dugu zelairik, eta aldiz, frontoiak herri guztietan", gaineratu du. Eta, adin desberdinetako haurrak elkarrekin jokatzeak badu bere xarma.

Aurtengo denboraldiko debuta Gartzarongo Pilota Txapelketako finaletan jokatu dute haurrek. "Txapelketaren antolatzaileek gonbidapena egin ziguten, ea finalen aurretik jokatuko zituzten eskolako umeek haien partidak, eta baiezkoa eman dugu. 15:30ean bi partida jokatuko dituzte ikasleek, eta horren ondotik hasiko dira finaleko partidak", amaitu du.

# Ekoizpenetik kontsumoraino

Tokiko Elikadura Sistemak eraikitzeko eta indartzeko, funtsezkoak dira "merkaturatze kanal laburrak". Definizioz, merkaturatze kanal laburrak dira ekoizpenetik kontsumoraino gehienez bitartekari bat duten kanalak

Zehazki, bi salmenta mota barnebiltzen dituzte. Batetik, salmenta zuzena: ekoizleak berak kontsumitzaileari produktua saltzen dion kasua da, eta etxean edo baserrian, plazan, azokan edo bestelakoetan gertatu daiteke. Bestetik, hurbileko edo gertuko salmenta: bitartekari bakarra dagoen kasuak dira, non, adibidez, ekoizleak denda edo ostatu bati saltzen dion produktua, eta dendak kontsumitzaileari.

Merkaturatze kanal laburrak, beraz, tresna garrantzitsua dira bertako ekoizpena eta merkataritza txikia sustatzeko. Horrekin batera, beste zenbait ekarpen garrantzitsu egiten dute: besteak beste, ekoizle-dendari-kontsumitzailearen artean konfiantzazko harremana sortzea ahalbidetzen dute, maiz, elkar zaintzarako harreman bilakatzen dena; herri eta eskualde mailan komunitatea ehuntzen laguntzen dute; bitartekari handien boterea gutxitu, eta ekoizleentzat irabazi marjina handiagoa uzten dute.

Azken bi asteetan, Mendialdeko Elikadura Mahaitik eta Cederna Garalurretik gure ekarpena egin nahi izan dugu eskualdeko kanal laburrak indartzeko eta, horretarako, zenbait ekimen egin ditugu. Horietako bi, hemendik aurrera baliagarri izango ditugun euskarriak sortzeko izan dira. Alde batetik, Mendialdeko Elikagaiak katalogoa eguneratu eta digitalizatu dugu, hemendik aurrera eguneratuta mantendu ahal izateko.

Beste alde batetik, Lurra, lana, herria. Mendialdeko Elikadura bideoa sortu dugu, non eskualdeko ekoizleak eta bertako produktuak saltzen edo erabiltzen dituzten dendak eta jangela kolektiboak azaltzen diren. Bertan ikusten denez, eskualdean, elikagaien ekoizpena kantitatean handia ez bada ere, kuantitatiboki begiratuta, aniztasuna handia dugu.



Egunero jaten ditugun elikagai asko eskualdean bertan eskura ditzakegu: gaztak eta bestelako esnekiak; mota ezberdinetako haragiak (txekorkia, betizu haragia, zaldikia, txerrikia, axuria eta oilaskoak); eztia; sagarrak, sagar zukua eta sagardoa; taloak eta arto irina; barazkiak eta banabarrak; ogia; arrautzak; gaztainak, hurrak eta horiekin egindako kremak; eta abar luzea.

Katalogoa zein bideoa laster egongo dira eskuragarri Mimukai eta Cederna Garalurren webgunetan. Beraz, ezagutu eskualdeko elikagaiak, eta animatu bertako produktuak kontsumitzera!

cederna garalur

**Azaroan, formakuntza-saio gehiagorekin gatoz Mimukaira!**

Oraingoan, bideo-marketinari buruzko formakuntza-saioak antolatu ditugu, bideoak gure negozioak ezagutarazteko eta sustatzeko tresna gisa erabiltzen ikasteko. MK Comunicación enpresak eskainiko dituen hiru saioetan, bideoaren bidez gure proiektu eta negozioen komunikazioa nola hobetu ikasiko dugu. Azaroaren 9an, 11n eta 18an izanen dira saioak, Leitzako Mimukai zentroan, 12:00etatik 14:00etara. Izena esteka honetan eman behar da: *https://labur.eus/BideoFormakuntza*

betiko
CARPINTERÍA PVC Y ALUMINIO

# PROFESIONALEN ESKUTIK






Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**

**JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK**

**ENERGIA AURREZTEA**

**SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA**

**ERABATEKO ISOLAMENDUA**

www.betikopvc.com • T. 948 45 32 59 • betikopvc@betikopvc.com

# 2026ko *irailean*

## *2026ko irailean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak: (Bi heriotza abuztukoak dira)*

### Jaiotzak:

Gu dakigula, irailean ez dugu jaiotzarik izan.

### Ezkontzak:

Ezkontza bat izan da, baina ahalegin guziak egin arren, ezinezkoa izan zaigu opatzea.

*"Beti izanen zaituztegu gogoan"*

### Heriotzak:

**ANUE**
**Etsain**
Victor Perez Oiartzun, **Jiltoneko (Xiltoneko)** semea, abuztuaren 4an hil zen, 64 urtetan.



*Victor*

**IMOTZ**
**Oskotz**
Amparo Arbilla Gerendiain, **Dindeko** etxekoandrea, abuztuaren 30ean hil zen 83 urtetan

**ULTZAMA**
**Lizaso**
Jose Sala Elizondo, **Guraxoneko** nagusia, irailaren 12an hil zen 87 urtetan.



*Joxe Sala*

## Zorionak Zorionak !



Zorionak Mikel!



# Ametzaren txokoa

## Egin zaitez bazkide!

Ametza Kultur Elkarteko bazkide izatera animatu nahi zaituztegu urte hasiera honetan. Horretarako, gure helbidera idatzi behar duzue, bazkideak@ametza.eus, datu hauek emanez:




**- Izen-abizenak:**

**- Helbide elektronikoa:**

**- Helbidea, herria eta posta kodea:**

**- NAN zenbakia:**

**- Telefono zenbakia:**

**- 20 digituko banku-kontua**

Urtean 50 euroko kuota bakarra izaten da, ekainean pasatzen duguna. Gainera, gure elkartea Nafarroako Gobernuaren mezenasgo legearen barne dagoenez, errenta aitorpenean ekarpenaren %80 arte itzultzen dute, alegia, 50 eurotik 40.

Bazkideen laguntzaren beharrean dago gure elkartea, antolakuntzari begira eta ekimen berriak eta betikoak aurrera eramateko. Animo, eta eskerrik asko!




* Promozioak 2026ko abenduaren 31ra arte balio du, gaur egun LABORAL Kutxa STa ez duten saltoki berrientzat. Android STrako eta ST birtualerako eskuragarri eta Payclick zerbitzuarekin.

** Hileko fakturazioa 20.000 €-tik gorakoa bada, % 0,40ko deskontua aplikatuko da zenbateko horretatik gorako tartearen gainean. Enpresa-txartelaren bidez egindako hileko fakturazioa eta nazioarteko txartelaren bidez eragiketa ez-presentzialetan egindakoa hileko fakturazio osoaren % 10etik gorakoa bada, % 1,5eko tasa aplikatuko zaie eragiketa horiei guztiei. Kuotak saltokiko terminal (ST) baten mantentze-kostua hartzen du barne, eta terminal gehigarri bakoitzeko 5 €-ko komisioa kobratuko da.

LABORAL kutxa

CAJA RURAL DE NAVARRA
ACCIÓN SOCIAL



# 2026ko Zozketa mundiala

## Sarien zerrenda
## Lista de premios



x3

**Asteburuko bidaiak 2 lagunentzat**

Estancias de fines de semana para 2 personas



x3

**Elgorriagako bainu etxean asteburuko egonaldiak**

Estancia de fin de semana en el Balneario de Elgorriaga



x2

**Landetxetan egonaldiak**

Estancias en Casas Rurales



x 20

**Bazkari edo afari bikoitz (inguruko ostatuetan)**

Comidas o cenas para dos (en las posadas locales)



x10

**Txerri gizen**

Cerdos gordos



x10

**Axuri eder**

Hermosos corderos

8 Esneki sorta / 8 packs lácteos
30 Saskitto / 30 Saskitto
25 gazta / 25 quesos
Eta... beste anitz sari / y... un montón de regalos más

**amezti.eus**